

EUSKAL AEko ERAIKUNTZAREN KOIUNTURARI BURUZKO INDIZEA (EKBI), 2010eko 3. HIRUHILEKOA


Euskal AEko eraikuntzaren sektorea %24,4 murriztu zen 2010eko hirugarren hiruhilekoan

Etxegintza %23,4 eta Obra Zibila %25,9 jaitsi ziren

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2010eko hirugarren hiruhilekoan, lan egutegi homogeneoan eta urte artean %24,4 murriztu zen, termino nominaletan, Euskal AEko eraikuntza jardura.

Urtaroen eragina zuzendu eta gero, 2010eko hirugarren hiruhilekoan eraikuntzaren sektorea %9,7 murriztu zen, aurreko hiruhilekoaren aldean.

1. grafikoa: Euskal AEko Eraikuntzaren Koiunturako Indizearen urte arteko hiruhileko hazkunde zuzendua Guztira, Eraikuntza eta Obra Zibila (%)



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako indizea. (EKI)

2010eko hirugarren hiruhilekoan, Eraikuntza sektorearen jaitsiera Etxegintza azpisektoreari -urte arteko %25,9ko jaitsiera izan baitzuen-, eta Obra zibilekoari, -%23,4koa- zor izan zitzaion.

Hiruhilekoen artean, 2010eko hirugarren hiruhilekoko sektoreko jardura aurrekokoarekin alderatuz gero, Etxegintzak bilakaera negatiboa du, %-9,1, baita ere Obra Zibilak, %-10,8.

Eraikuntzako enplegua 2010eko hirugarren hiruhilekoan %2,3 jaitsi zen 2010eko bigarrenaren aldean, eta %9,8 aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

1. taula: Eraikuntzaren Koiunturako Indizea Euskal AE 2010eko 3. hiruhilekoa. Aldakuntza tasak (%). Behin-behineko datuak.

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	10 3.hir / 09 3.hir	At / At-1 (1)	10 3.hir / 10 2.hir	10 2.hir / 10 1.hir
Produkzioaren indizea	-24,4	-17,4	-9,7	-5,6
Eraikuntza	-23,4	-16,4	-9,1	-3,9
Obra zibila	-25,9	-19,1	-10,8	-8,6
Landunen indizeak	-	-	-2,3	-3,1

(1) t urteko lehen hiruhilekotik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako indizea. (EKI)

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Eraikuntzaren koiunturari buruzko indizea (EKBI); prentsa ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzaren koiunturari buruzko indizea (EKBI); datu-bankua